

Euskal nortasuna duen ardo bat

Txakolina



**BILBAO
BIZKAIA**
be basque

Deskubritu ardo paregabe hau
Oso gutxiren eskura dagoen esperientzia

- Ezagut itzazu Bizkaiko Txakolina, bere historia eta bere nortasuna
- Itsasora edo mendietara begira
- Museoak, interpretazio-zentroak eta jaiak
- Goazen upategietara
- Gastronomia, dastatzeak eta pintxoak

Turismo jasangarriago
eta arduratsuagoaren
alde

**GARAPEN
IRAILARRO-GERATU
HELBURUA**



BILBAO BIZKAIA

Txa koli



Txartel honekin dirua aurreztuko duzu eta errazagoa izango da Bilbao Bizkaiko egonaldia planifikatzea, bai, garraio publikoan, bai musoeotarako, ikuskizunetarako eta abarrerako sarreretan, dendetan eta aisialdiko bestelako espazioetan. Eskatu Bilbao Turismoko bulegoetan edo webgune honetan:

www.bilbaobizkaiaecard.com

Erreserbatu **BILBAO
BIZKAIA .eus**

reservabilbaobizkaia.eus/eu



2023ko ekaina / Bigarren edizioa

Argitaratzailea: Bilbao Bizkaia be Basque

Argazkiak: Artxiboak: Artxiboak: Bilbao Turismoa, Bizkaia Turismoa, Basquetour, Hazi, Bell, Gonzalo Azumendi, Pedro Muñoz, Quintas argazkilaria, Gemma Arrugaeta, Mitxi, Martín argazkilaria, Bilbao Basket, CC by-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritza/Mikel Arrazola, ABAO-OLBE © E. Moreno Esquibel, CC Amélie Nollet, CC Zawp, CC Hacería, CC Infameless eta beste batzuk.

L.G.: BI-00010-2020

Seduzituko zaitu hauek

EZAGUTZEAK

4

BIZKAIKO TXAKOLINA
Nolakoa da ardo hau?
Historia
Gure nortasunaren marka
Itsasora begira
Barrualdeko paisaia
Nola egiten da?



Unkituko zara hauek

BISITATZEN

16

UPATEGIAK
Goazen upategietara!
Kokapen-mapa
Gaztelugatxe
Pozalagua
Urdaibai, Biosferaren Erreserba
Gorbeiaiko Parke Naturala eta
Nerbioiko ur-jauzia
Urkiola Parke Naturala
Lea-Artibai
Txakolinaren ibilbideak





Gustatuko zaizu hauetara

JOATEA

12

Txakolinaren museoa: Txakolingunea
Mendibile, txakolinaren museoa eta
Jatorrizko Deituraren egoitza
Bizkaiko Txakolinaren jaia



Liluratuko zaitu hauek

DASTATZEAK

54

Bilbao: guztion gusturako
Goazen pintxoak eta txakolina dastatzera
Euskal gastronomiarekin
uztartuta
Nola egin dastatze on bat



JATORRIZKO DEITURAK

62

Arabako Txakolina
Bizkaiko Txakolina
Getariako Txakolina



TOPTXAKOLINA

64

Galdu ezin
dezakezun
gutzia, 10
proposamenetan

INFOPRAKTIKOA

66

Helbideak,
telefono-
zenbakiak,
estekak...
Jakin ezazu
den-dena

BIZKAIKO TXAKOLINA nolakoa da **ardo hau?**

4

Txakolina, batez ere, ardo zuri bat da, neurrizko graduazioduna, lurrinetan aberatsa, freskoa eta garraztasun atsegin nahiz bereizgarriduna. Ardo hau Atlantikoan ohikoa den mahastigintzaren uzta da, eta mahats autoktonoen barietateetatik sortzen da; hala nola, hauetatik: Hondarrabi Zuri, Hondarrabi Beltza eta Hondarrabi Zuri Zerratia. Funtsean, Bizkaia heze eta epelean ohikoak diren klima-baldintzek ematen dizkiote ardo honi hasieratik bertatik berezi egiten duten ezaugarriak.

Bizkaiko txakolin-ekoizpenaren % 95 baino gehiago ardo zuri freskoa da; hala ere, zenbait enologoren intuizio zuzen eta ondo egitearen ondorioz, kalitate handiko barietateak topa ditzakegu merkatuan: hondarretan hartzitutako zuriak, kupeletan hartzitutakoak, gorriak eta baita Bizkaiko txakolin beltz harrigarri eta etorkizun handikoa ere. Ezin ditzakegu bazter batean utzi ardo apardunak eta mahats-bilketa berantiarreko ardoak, txakolin esaten ez zaien arren Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deituraren babesa baitute.



ARDO BEREZI ETA BIKAIN HONEN HISTORIA

Txakolin hitzaren jatorrietan arakatzean, historialariek eta hizkuntzalariek askotariko teoriak dauzkatela ikus dezakegu. Baliteke esanahiaren azalpenak «etxeko ain» espresioan (etxerako adina) edukitzea jatorria. Hots, antzinako ardandegi-jabe zuhurrek txakolin-kopuru ekoitziar aritzeko erabiltzen zuten erantzuna. Edozein ikerketa historikotan bezalaxe, zenbait aukera daude: beste aditu batzuek baieztatzen dutenez, «etxeko eginda» adierazpidetik dator hitza. Kasu horretan, txakolina baserrietan edateko ekoizten zela uler dezakegu, eta baserrietan egiten zutela, artisau-eran.

Bizkaian, mahatsondoen laborantzak tradizio luzea dauka. Hain da horrela, ezen, jatorrietara iristeko, milaka urte egin behar baititugu atzera. Txakolinak Bizkaiko ekonomian hainbat mendez izan duen garrantzia XVII. eta XVIII. mendeetan ikus daiteke gehienbat, Bizkaiko txakolinaren urrezko mendetzat hartzen baitira horiek.

Alabaina, baserrietako biztanleak hiri-eremuetara industrian lan egitera joan izanak, foruen muga-zergen babesa desagertu izanak eta mahastiak kaltetzen hasi ziren gaixotasun berriek, izugarritzko beherakada eragin zuten txakolin-ekoizpenean, ia-ia desagertu arte, eta, ondorioz, ardoa egiteko erabiltzen zituzten teknikei eta barietateei buruzko informazioa galdu zen.

XX. mendean, 80ko hamarkadara arte, txakolina ekoizteari utzi zitzaion, baserri batzuk kenduta. Gero eta ekoizle gutxiago zegoenez, mahastiak sakabanatuago geratu ziren Bizkaian. Bada, egoera ekonomiko delikatu hartan ekoizpenari nolabait eusteko, Hondarribi Zuria izeneko barietate autoktonoa baino emankorragoak ziren baina txakolina egiteko hain egokiak ez ziren beste mahats-barietate batzuk hasi ziren erabiltzen. Horren ondorioz, ardoaren kalitatea ez zen ohikoa izan XX. mendearen zati handi batean.

80ko hamarkadaren hasierako urteetan, demokrazia itzuli zen, eta, harekin, baita Eusko Jaurlaritzak eta txakolin-ekoizle apur batzuek, Bizkaian txakolina berreskuratzeko indarrak bil zitzaizuten behar ziren eskumenak ere. 1994an, hamar urte baino gehiagoko lanaren ondorioz, Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura aitortu zen.



A
GOOD
IDEA!

Txakolin-botila bati kortxoa ateratzen diozunean, herri honen nortasun-zatitxo bat irekiko duzu.



GURE NORTASUNAREN MARKA

8

Bizkaiko kulturaren eta gastronomiaren enbaxadore perfektua daukagu begien aurrean, lurralde historiko imitaezin honetara zatozten guztiontzako anfitrioiirik onena. Eraldatzen eta gure garaietara egokitzen jakin duen ardoa dugu hau: txakolina, kalitatearen faro berria bihurtu da Bizkaian, atzean utzi baitu baserrietako kontsumoari bakarrik zuzenduriko ekoizpena eta mundura ireki baita, onenetako bat izateko asmoz.

Inolako zalantzarik gabe, Bizkaiko Txakolinaren botila bati heltzea Bizkaiarik onena esku artean edukitzea da.

Bizkaiko Golkoaren kontra talka egiten duten olatu atlantikoaren kresalarekin kargatutako aireak, zapore eta lurrin berdingabeak oparitzen dizkie mahastiei. Gainera, itsasotik hurbil dagoen luraren substratuak ere kontuan hartzen baditugu, ezaugarri paregabeak dituen ardoa sortzen da. Txakolin baten aurrean zaudenean, gogoratu seguru asko ardo atlantiko baten aurrean zaudela. Mahastiak, oro har, mendi-hegaletan egoten dira, lurra euri-ura drainatu ahal izan dezan, eta, bestetik, hegoaldera begira egoten dira, mahastiek heltzeko behar duten argia jaso dezaten. Ardo baten lehengaia lantzeko baldintzak zailak direla pentsa dezakegu, baina hain juxtu ere baldintza horiek egiten dute txakolina hain ardo berezi eta desberdina.

ITSASORA edo



Mahastiak bisitatzen dituzunean, edo horiek ikusteko aukera duzunean, 400 metrotik beherako altitudea duten lursailetan daudela nabarituko duzu, eta mendi-hegalen erdialdeko lurretan daudela, iparraldeko haizetik babestuta, eguzkiak ematen duen tokietan, mahatsak hel daitezen. Barrualdeko bailaretan, zehazki, laborantzarako batez besteko altitudea 50-200 metrokoa da.

MENDIETARA begira



Nola **EGITEN** DA?

MAHATS-BILKETA

Irailaren amaieran, mahats-mordoak helzte-puntu onenera iristear daudela, Mahatsa, eskuz hartu eta upategiartara eramaten da.

10

ZOTZAK KENTZEA

Mahatsa bildu ondoren, zotzak kentzea da upategietan egiten den lehendabiziko lana; hau da, gorputza mahats-mordotik edo txortenetik bereizten da.

PRENTSATZEA

Gero, mahatsa prentsatzan da, muztioa ateratzeko. Mahatsari ezartzen diogun presioaren arabera, mota ezberdinak lortuko ditugu.

LOHIA KENTZEA

Tanga batean sartu ondoren, muztioak lohia kentzeko teknikaren bidez iragazten du bere burua; hau da, hondarrak deuseztatzen ditu, dekantazio-sistema baten bitartez.

HARTZIDURA

Muztioa garbiketa-etapa horretatik igaro ondoren, beste tanga batera eramaten da, hartzidura-prozesuari ekiteko. Tanga gehienak altzairu herdoilgaitzezkoak izaten dira, eta hartzidura hozketa-sistema baten bidez egiten da. Legamien laguntzarekin, muztioaren jatorrizko azukretik datorren alkohola lortzen da. Une horretan, beste osagai batzuk (CO₂-a) eta dastamen- nahiz usaimen-ezaugarriak agertzen dira.

ONTZI-ALDAKETAK

Hartziduraren ostean, hiru hilez behin-edo, ardoa tanga batetik beste batera pasatzen da.

GARBITZEA, HOTZEAN EGONKORTZEA ETA IRAGAZTEA

Txakolinaren kasuan, oso garrantzitsua da produktua garbi egotea; batez ere, ardo zuiriaren barietatea denean. Hori lortzeko, hiru teknika erabili ohi dira: garbitzea, hotzean egonkortzea eta iragaztea.

Ardo horrek, Bizkaiko Txakolin gisa saldu ahal izan dadin, kalitatea ziurtatzeko kontrol kimiko eta organoleptiko bat gainditu beharko du.



TXAKOLINAREN MUSEOA: **TXAKOLINGUNEA**

kus-entzunezkoen eta bitarteko interaktiboan bidez, txakolinaren ezaugarriak eta txakolina egiteko prozesua ezagutzeko aukera ematen digu Bakioko Txakolinguneak, nortasun handiko ardo berezi eta paregabe horren tenpluetako bat baita. Azken garaiotan txakolina eta upategiak eraldatzen joan diren historia eta bilakaera ezagutuko ditugu; izan ere, upategiek, balio tradizionalei gogor heltzen dieten arren, azken aurrerapen teknologikoak sartu dituzte artisau-ekoizpenaren prozesura, eta, horrela, merezitako aitortza eta prestigioa lortu dituzte, ahalegin eta lan mardulen ondorioz. Halaber, nahiz eta txakolin zuria den ezagunena eta gehien ekoizten dena, badaude txakolin gorria edo «oilar-begia» deiturikoa ekoizten dituzten upategiak ere («oilar-begia» oso-oso berezia izateagatik nabarmentzen da, gutxiago ekoizten bada ere).

13

**A
GOOD
IDEA**

Aprobetxatu museora egiten duzun bisita dastatze on bat egiteko, ibilbide gidatu interesgarri bat egin ondoren. Txakolingunea@bizkaia.es webean erreserbatu dezakezu bisita, edo 94 602 85 13 telefono-zenbakira deituta.



MENDIBILE

JDrako tokoa

Mendibile Jauregia Elkarte, ardoaren eta nekazaritzako elikagaien euskal industriaren sektorean proiektu asoziatibo bat sustatzeko sortu zen. Hala, Bizkaiko Txakolina, Leioa udalerria eta nekazaritzako elikagaien euskal sektorea sustatzeko, horiek barne-mailan garatzeko eta ehundura sozioekonomikoa dinamizatzeko ekin-tzak egitea da irabazi-asmorik gabeko elkarte honen xedea. Era berean, bilerak edo ekitaldiak egiteko zerbitzu egokiak dituen toki baten bila dabilzan enpresa edo erakunde guztien business center-a bihurtu nahi du.





BIZKAIKO TXAKOLINAREN JAIAK

• **Bizkaiko Txakolinaren Eguna:** Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Erregulatzailerak txakolinaren enbaxadore berriak izendatuz ospatzen du urteko uztia, udaberrian. Herrialdeko pertsona ospetsuak izendatu ohi dira enbaxadore, eta edizio bakoitzean agertokia aldatzen duen jai bat egiten da horretarako.

• **Branke jaia:** martxoaren eta apirilaren artean, Mendibile jauregian (Leioa), Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Erregulatzaileraren egoitzan, urteko uztaren aurkezpena egiten da.

• **Bakioko Txakolin Eguna:** martxoaren 19an, San Joseko azoka tradizionalan, txakolin-jaia egiten da. Uztia berria babesten eta aurkezten da, eta, gainera, berori dastatzeko aukera ematen da Txakolingunean.

• **Larrabetzuko Txakolin Eguna:** martxoaren eta apirilaren artean, Txakolin Eguna ospatzen da Larrabetzun. Txorierriin Bizkaiko Txakolina jatorri-deitura daukaten upategiek antolatzen dute.

• **Urdaibaiko Txakolin Eguna:** eskualdeko gazta eta txakolina dastatzeko aukera ematen duen azoka da. Ekainaren lehenengo larunbatean egiten da, Gernika-Lumon.

• **Lezamako Txakolin Eguna:** Urtero-urtero, ekainean, txakolinaren jaia egiten da Lezaman. Bertan, Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura inskribatuta dauden upategiek haien txakolinak aurkezten dituzte, jai-giroan.

• **Muskizeko Nekazaritza Azoka:** ekoizleen ohiko topalekua da, non Bizkaiko hainbat eremutako txakolinak tokiko beste produktu batzuekin lagunduta dasta daitezkeen. Irailean egiten da.

• **Uribeko Urri Gastronomikoa:** Uribe eskualdean, askotariko jarduera enogastronomikoak egiteko aukera dago; hala nola, txakolin-dastatzeak eta tokiko produktu gehiago (taloa, artisau-garagardoa...) probatzeko nahiz egiteko tailerrak.

• **Txikiteroen festa:** urriaren 11n, txikiteroek omenaldia egiten diote Begoñako Andra Mariari, Bilboren zain-tzaileari. Topaketa honetan, jarduera ludiko ugari egiten dira Bilboko Alde Zaharrean.

• **Balmasedako Mahats-bilketaren Jaia:** urriko hirugarren igandean, Mahats-bilketaren Jaia ospatzen da Balmasedan, eta Bizkaiko Txakolina jatorri-deiturara atxikitako bodegek hartzen dute parte. Txakolina dastatzeko aukera eskaintzeaz gain, dastatze iruzkinduak, haurrentzako tailerrak eta zuzeneko musika antolatzen dira.

• **Gernikako Urriko Azken Astelehena:** Bizkaia osoko ekoizleak joaten dira azoka honetara. Gernikaren erdialdean izaten da hitzordua, eta 900 postu inguru jartzen dira.

• **Mundakako Txakolin Eguna:** urtero-urtero, abenduko lehenengo zubiaren ostean, tokiko txakolina eta produktuak dastatzeko azoka txiki bat egiten da.

• **San Tomas azoka:** baserritarrak Bilbora jaisten dira, produkturik onenekin. Ehun mila lagun baino gehiago bertaraten dira abenduaren 21ean Bilboko Hareatzan eta Plaza Barrian egiten den azoka honetara.

Goazen UPATEGIETARA!

16

**A
GOOD
IDEA !**

Ez dago produktu bat bere jatorrian bertan eta produktua egitean, sekulako irrikaz aritzen diren pertsonen eskutik ezagutzea baino gauza hobirik.

Hortaz, hona hemen ardo berezi eta eksklusibo hau dastatu eta erosteko bisitatu ahalko dituzun upategien zerrenda (aurretiko hitzordua eskatu behar da).



IKUSI ZER ESKAINTZEN DIZUTEN, ETA HAUTATU NAHI DUZUN HORI

Hona hemen upategi bakoitzak ematen dituen zerbitzuak zein diren jakiteko zenbait ikono.

Dena dela, haiekin harremanetan jartzea, zernolako esperientzia izan nahi duzun esatea eta zure premiekin bat egiten duena hautatzea da onena.

Ezagut itzazu hurbiletik, eta partekatu ekoizleekin txakolin on bat egiteko esperientzia paregabea.

Ikonoen interpretazioa



upategirako bisita



mahastietarako bisita



dastatzeak



jatetxea



bilera-gela



gehienerako pertsona-kop.



denda



autobusen aparkalekua



garraio publikoa <10'



arretarako hizkuntzak




MICE turismoa

17

Amunategi upategia (Busturia)

UPATEGIAK

18



Txakolin-upategiak bistatzea aitzakia ezin hobea da turismoa egiteko eta Bilbao Bizkaiak eskaintzen dizkizun askotariko proposamen, ekitaldi eta esperientzia erakargarriez gozatzeko.

21
Urduña



BILBAO
BIZKAIA
be basque

GAZTELUGATXE ETA URIBEKO FLYSCH-A

- 1 ABIO UPATEGIA
- 2 BUTROI UPATEGIA
- 3 ERDIKOETXE UPATEGIA
- 4 GARKALDE UPATEGIA
- 5 GORKA IZAGIRRE UPATEGIA
- 6 DONIENE GORRONDONA UPATEGIA
- 7 MAGALARTE LEZAMA UPATEGIA
- 8 MAGALARTE ZAMUDIO UPATEGIA
- 9 URIARTE UPATEGIA
- 10 ZABALA UPATEGIA

POZALAGUAKO KOBAZULOA

- 11 GALDAMES UPATEGIA
- 12 MARKOLETA UPATEGIA
- 13 TXABARRI UPATEGIA
- 14 ULIBARRI UPATEGIA
- 15 VIRGEN DE LOREA UPATEGIA

URDAIBAI, BIOSFERAREN ERRESERBA

- 16 AMUNATEGI UPATEGIA
- 17 BERROJA UPATEGIA
- 18 ITSASMENDI UPATEGIA
- 19 HASIBERRIAK UPATEGIA

GORBEIAKO PARKE NATURALA NERBIOIKO UR-JAUZIA

- 20 BIZKAI BARNE UPATEGIA
- 21 GURE AHALEGINAK UPATEGIA
- 22 UGABE UPATEGIA

URKIOLA PARKE NATURALA

- 23 ARRITXOLA UPATEGIA
- 24 ETXERRIAGA UPATEGIA
- 25 MENDRAKA UPATEGIA

LEA ARTIBAI

- 26 AXPE UPATEGIA

Agertoki paregabea GAZTELUGATXE

Gaztelugatxeko ermita (Bermeo) istorio askoren protagonista da, eta, Kantauri itsasoari buru eginez, antzinako naufragioen oihartzunak, itsasotik bizirik irtendako marinelen ofrendak, erromesen eskaintzak eta magia nahiz fantasiaz beteriko kontakizunak gordetzen ditu, kontinenteari 241 mailarekin loturiko istmoan. Iristen zarenean, ez utzi desiorik eskatu gabe, eta hiru aldiz jo ezazu kanpaia, desioak betetzeaz gain espiritu txarrak uxatu daitezten.



URIBEKO FLYSCH-A

Haitzezko hondartzak

Mareabeheran, hondartza hauen edertasuna agerian geratzen da. Ur-geruzaren azpian, inguruko ingurumen-aniztasuna erakusten duen fenomeno bitxi bat dago ezkutatuta. Arroak aitzo zorrotzen modura agertzen dira Barrikako kostaldean. Aberastasun natural horri flysch esaten zaio, eta ura eta hondarra arroketan higitzen direnean sortzen da.

Pauso gutxi batzuetara, Plentzia, Gortiz eta Sopela daude, kostaldeko herri zoragarriak horiek, eta surf-tradizio handiaz goza daiteke horietan. Kirola nahikoa ez bada, tokiko gastronomiak maiteminduko zaitu inguru honekin.

HEMENDIK
HURBIL

Txakolingunea, txakolinaren museoa

Upategian esperientzia paregabea bizi-tzeaz gain, ardo zehatz honi buruzko erakusketa- eta azalpen-zentroan ibili ahalko zara Txakolingunean. Bertan, sakon-sakon ezagutu ahalko dituzu txakolinaren historia, bilakaera eta ardoa egiteko teknikak, ikus-entzunezkoak eta bitarteko interaktiboak dauzkan museo moderno batean.



HEMEN GAUDE



43.418905,
-2.817368

Basigoko elizaren ondoan dago, eta egitura tradizionala dauka. Hiru belaunaldi arduratu dira hain ardo preziatua lortzeko sekretu txikiak gorde eta hobetzez.

Halaber, berrikuntzaren eta garapenaren alde egiten du, eta iraganeko espirituari heltzen dion kalitateko produktu gaurkotua lortzen du horrela. Txakolin zuria, beltza eta gorria dira bertako espezialitateak.

Bakio

Bilbao

688 618 948
(94) 619 43 45
rgaubea@hotmail.es
Basigo baserria, Elexalde auzoa 5
BAKIO
www.bizkaikotxakolina.eus





UPATEGIA

BUTROI

23

HEMENDIK
HURBIL

Butroeko gaztelua

Monumentu berezi eta historiko hau 35.000 m² baino gehiago dituen parke batean dago, biodibertsitate aberatseko inguru pribilegiatu batean. Erdi Aroan daude eraikinaren jatorriak; hain zuzen ere, tokian Butroetarren leinuaren dorretxea zegoen garaian. Alabaina, XIX. mendean Cubas markesak egindako birgaiketaren emaitza ikus dezakegu gaur.



HEMEN GAUDE



U rube eskualdean, txakolina ekoizten urteak eta urteak zeramatzaten lau familia elkartuta, sortu zen upategi hau.

Arkitektura modernodun eraikin honek dastatzeak egiteko eremu bat dauka, baita denda ere, bisitariek bizipen enologikoa izan dezaten. Gatikan, Zamudion, Lezaman eta Larrabetzun dauzkate mahastiak, eta honako barietate hauek hazten dituzte batez ere: hondarribia zuria, petit courbu-a eta mune mahatsa.



639 469 738
txakoli@butroi.com
Igartua auzoa 25. GATIKA
www.butroi.com



ERDIKOETXE

24

HEMENDIK
HURBILDonejakue
bidean

Donejakue bideak bi ibilbideren bidez zeharkatzen du Euskadi, eta Bizkaitik igarotzen da horietako bat; zehazki, Kostaldeko bidea edo Iparraldeko bidea deiturikoa.

Ibilbide zaharrenetako bat da, eta iparraldeko herrialdeetatik zetozen erromesek hartu ohi zuten.



HEMEN GAUDE



43.286097,
-2.828538


Erdikoetxe baserria 1890ean eraiki zuten, baina jatorrizko arkitektura eta gaur egungo funtzionaltasuna elkartzuz birgaitu dute.

Bertako dendan, mahastigintzari eta frutikulturari eskainitako denbora eta lanaren ondorioz, haien txakolina eta sagardoa aurki daitezke (baita inguruko ezlia eta artisautza ere).



625 700 554
(94) 457 32 85
erdikoetxelandetxea@hotmail.com
Goitioltza auzoa 38. LEZAMA
nekatur.net/erdikoetxe



HEMENDIK
HURBIL

Larrabetzuko hirigune historikoa

1994an, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburuordetzak ondasun kultural izendatu zuen Larrabetzuko hirigune historikoa, eta monumentu-multzoaren kategoria eman zion. Eta ez da harritzekoa, Jasokundeko Andre Mariaren elizari tokia egiten dion hirigune historiko zoragarritik ibiliz gero. Halaber, beste eraikin zibil batzuk nabarmentzen dira; hala nola, Anguleri, Ikaza edo Oloste jauregiak.



HEMEN GAUDE

43.378212,
-2.887565

Landetxe bat da, inguruarekin harmonian lorez apainduriko etxe familiabakarra. Bi solairu dauzka: behe-solairua upategia da, eta goikoa txakolina dastatzeko tokia da, sekulako ikuspegiak dituena.

Txorierrin dago, Bizkaiaren bihotzean; zehazki, Lezamako Goitizola auzoaren hegoaldera begira dauden mendi-hegal berdeen erdian, horixe izaki munduko inguru txakolinzaleenatariko bat.



677 578 664
(94) 455 64 12
garkaldetxakolina@hotmail.com
Goitiltza auzoa 8. LEZAMA
www.bizkaikotxakolina.eus



GORKA IZAGIRRE

26

HEMENDIK
HURBILLehen mailako
gastronomia

Nazioartean ezaguna den Eneko Atxa sukaldariaren esparru gastronomikoaren ondoan dago upategia.

Natura-ingurune bete-betean, upategiaren ondoan, hiru Michelin izar dituen Azurmendi jatetxea eta izar bat duen ENEKO jatetxea daude.

Eutsi ezineko tentazio gastronomikoak horiek.



HEMEN GAUDE



43.253254,
-2.824891



Gorka Izagirre proiektua mahastian bertan sortu zen, eta etengabeko bilakaeran dago, baina nortasun eta jatorri bizkaitar aldaezinari eutsiz, kalitate handiko ardo zuriak lortzeko.

Txakolin gazteak ez ezik, guardako ardoa ere egiten dute. Adibidez, 2019an, Bruselako Mundu Lehiaketan, ardo zuri onenaren saria eman zioten 2015eko 42 Zura txakolinari.



670 497 107
(94) 674 27 06
txakoli@gorkaizagirre.com
Legina auzoa z/g. LARRABETZU
www.gorkaizagirre.com

UPATEGIA

DONIENE
GORRONDONA

27

HEMENDIK
HURBIL

Surfaren zaleentzat

Bakiora hurbilduz gero, Bizkaiko kostaldeko hondartza zoragarrienetako batera joango zara, zeina surf-zaletasunagatik eta hainbat surf-txapelketagatik nabarmentzen den.

Beraz, upategia ikusi eta txakolin on bat dastatu aurretik, animatzen bazara, jantzi neoprenoa eta hartu olaturen bat. Bestela, hondartzatik pasieran ibiltzeak gosetuko zaitu.



HEMEN GAUDE

43.423929,
-2.807707

1996tik egiten dute txakolina. Tradizioa berrinterpretatzea izan du beti xede; hots, nortasun handiko ardoak ekoiztea, baina gure sustraiak ahaztu gabe.

Natura-ingurunea eta mahastigintza, barietate autoktonoak eta mahastietako lurzoruen nahiz mikroklimen berezitasunak ulertzeko modu bitxiaren ondorioz, ardo gazteen eta guardako ardoen sorta handia ekoiztea lortu du.

Bakio

Bilbao

656 700 764
(94) 619 47 95
bixitak@donienegorrondona.com
Gorrondona baserria, Gibelorratzagako San Pelaio 1. BAKIO
www.donienegorrondona.com



MAGALARTE LEZAMA

28

HEMENDIK
HURBILAthletic Clubaren
entrenamendua

Bizkaitik igarotzen bazara (zehazki, Bilbotik), ezin dezakezu San Mames estadio berri eta ikusgarria galdu, Athletic Clubaren "katedrala" baita. Baina, Lezaman zaudenez, berehala ikusiko duzu futbol-talde ohoratuak hementxe entrenatzen duela eta hemen jarri dutela estadio zaharraren sinboloa den «San Mameseko arku» zaharra.



HEMEN GAUDE

43.277370,
-2.829889

Upategia Txorierriren bihotzean dago, naturaz inguratuta, mahastiak garatzeko inguru pribilegiatu batean, aireportutik eta Bilbotik 10 minutura bakarrik.

Hegoaldera begira dauden mendi-hegaletako lurzoru franko buztinsuek eusten diete hondarribia zuria eta hondarribia zuri zerratia barietate autoktonoen eta petit manseng nahiz riesling barietate gutxiagotuen mahatsondoei. Bertan, upategia bisitatu daiteke, dastatze bertikalak egin daitezke, eta baita zaldiz ibili ere.



672 249 868
(94) 455 65 08
magalarte@icloud.com
Garaioletza auzoa 92 bis. LEZAMA
www.magalartelezamatxakolina.com



UPATEGIA

MAGALARTE ZAMUDIO

29

HEMENDIK
HURBIL

Zamudioko dorrea

Zamudioko dorrea Areagako auzo nagusian dago, San Martin elizaren ondoan, eta Bizkaiko jaurreriko leinu gailenen berant Erdi Aroko bizimoduak ondoen jasotzen dituen monumentuetako bat da.

Gaur egun, bisitatu ahal izateaz gain, erakusketa-eremua izateko areto bat dauka.



HEMEN GAUDE

43.290120,
-2.865173

Zamudio historikoki mahatsondo-estaltitako lurra izan den arren, honako hau da udalerrian geratzen den upategi bakarra. Familiaren tradizioari eusten dio; hots, XIX. mendearen erdialdeko ardo-ondare kulturalari.

Gaur egun, Magalarte Zamudio upategiko txakolin-egileen 5. eta 6. belau-naldiak daude bertan, eta horregatik erabaki zuten upategia betiko herrian (jaiotzen ikusi zituen herrian) eduki-tzea betiko.



630 109 686
(94) 452 14 31
kaixo@bodegamagalartezamudio.com
Arteaga auzoa 107. ZAMUDIO
www.bodegamagalartezamudio.com





HEMENDIK HURBIL

Olentzeroren etxea eta Izenaduba basoa

XVI. mendeko baserri zoragarri hau sorpresaz josita dago. Hemen, haurrek mundu magiko bat topatuko dute, non euskal mitologiako pertsonaia guztiak (adibidez, sorginak, lamiak eta basajaina) bizirik ikusiko dituzten eta haiekin hitz egin ahalko duten. Hala ere, Olentzero da garrantzitsuen, Gabonetan opariak ekartzen baitizkie txikienei.



HEMEN GAUDE



43.305734,
-2.808607

Francisco Uriarteren birraitona-amonak hasi ziren, XIX. mendearen amaieran, Fikako Eguskitza baserrian mahastiak landatzen eta txakolina egiten.

Uriarte upategian, badakite ardoen eta gastronomiarekiko uztartzearen gustua oso subjektiboa dela. Duten eskarmentuaren eta ondo egindako lanarekiko maitasunaren ondorioz, leiho bat ireki diete nortasun handiko upategien berrikuntzei, gehien txalotzen diren klasikoak alboratu gabe.



659 674 595
(94) 615 31 40
info@txakoli-uriarte.com
Eguskitza baserria, Acillona auzoa 42.
GAMIZ-FIKA
www.txakoli-uriarte.com



UPATEGIA

ZABALA

HEMENDIK
HURBILArmintzako
flysch beltza

Itsasora begirako kai-muturra duen portu txiki honek kostaldeko marinel-herrien xarma dauka.

Gainera, inguru naturalak sekulako edertasuna eransten dio tokiari, interes geologikoko toki izendatu duten flysch ikusgarria baitago bertan; hau da, orri-itxura dutenez, kostaldearen historia naturalari buruzko liburu moduko bat eratzen duten haitz-xaflak daude.



HEMEN GAUDE

43.418840,
-2.816865

Landa-eremu batean dago, antzinako jauretxeen ibilbidean, non mahastiak nahiz Bakioko laranjondo eta limoiondo ospetsuak hazteko mikroklima ezin hobea dagoen.

Familia-upategi honek euskal arkitektura tradizionalari heltzen dio oraindik ere, eta antzina txakolina egiteko erabiltzen zuten makineria ikus daiteke bertan, upategiaren ondare historiko gisa (bisitarientzat, bitxikeria ederra da).



656 767 954
(94) 619 33 74
zabalatxakolina@gmail.com
Goitisoloalde 22-A. BAKIO
www.bizkaikotxakolina.eus





Lurpeko ikuskizuna

POZALAGUAKO KOBAZULOA

32



BALMASEDA

Iraganeko oihartzunak

Hirigune historiko bitxi-bitxi batekin, eta iragan harresitua oroitarazten duen zubi zaharra buru duela, Balmeda da eskualdeko biztanlegune handiena.

Bertako Aste Santua ezaguna da, 50.000 lagun baino gehiago erakartzen dituen eta errealismoz beteta dagoen Pasio Biziduna berregiten baitu. Halaber, La Encartada txapel-fabrika zaharra bisitatu dezakegu; izan ere, garaiko makineria gordetzen du oraindik ere, eta eremuko gailur industrialak izan zenaren isla ezin hobe da.

Babarrun onak jatea gustatzen bazaizu, bilatu «putxerak»; hau da, trenbide-langileek babarrunak txakolina edanez prestatzeko erabiltzen zituzten ontziak edo eltzeak.

Pozalagua naturaren miraria da, munduko estalaktita eszentrikoen kontzentrazio handiena baitago bertan (estalaktika eszentrikoak grabitateari aurre eginez hazten diren eta erliebe liluragarria osatzen duten egiturak dira).

2013an, Repsol Gidaren txoko onena izendatu zuten, lurpeko multzoa izugarria delako. Karrantzako Pozalagua kobazulora joanez gero (Enkarterriak), koralezko uharrien antzera nabarmentzen diren milaka estalaktika eszentrikoren, zutabeen eta koladen artean ibiliko zara.

Hortik oso hurbil, Balmaseda hiribilduan, La Encartada Fabrika Museoa dago, instalazioak, makineria eta langileen kolonia ukitu gabe mantendu dituen XIX. mendeko ehun-fabrika. Gaur egun, Industria Iraultzaren garaira eramaten gaituen toki turistikoko garrantzitsua da La Encartada.

GALDAMES

34



Loizaga Dorrea eta auto klasikoek museo

Erdi Aroko dorre honek barruan dauka 1910etik 1998ra bitartean fabrikatu diren Rolls-Royce modelo guztien bilduma (bakarra Europar).

Bada, aurrekoaz gain, antzinako autoak, auto klasikoak eta kirol-autoak biltzen dituen beste bilduma fin bat dauka. Beraz, bisita interesgarria izan daiteke autoen historia maite dutenentzat.

Naturaren erdian dago, Bilbotik 30 kilometro eskasera.



HEMEN GAUDE



43.253154,
-3.128865

Mahastien 8 hektarea eta 70.000 botila inguru ekoizteko gaitasuna dituen familia-upategia da. «Torre de Loizaga» dorreak ematen die izena gustu zorrotzenak asebetetzen dituzten Bigarren eta Selección txakolin indartsuei. Upategiak «Errota Zaharra» izeneko marka ere ekoizten du, Baldibiango erroren omenez, familiaren jabetzakoa baita XV. mendeko burdinolarekin batera, Bizkaiko irin-errota zaharrek txakolinarekin duten harreman historikoari eusteko.

Bestalde, XVI. mendeko baserria dauka mahastietan bertan, enoturismo hainbat aukera eskaintzeko.



627 992 063
(94) 610 46 61
info@vinasulibarría.com
Bentorro 4. GALDAMES
www.vinasulibarría.com



UPATEGIA

MARKOLETA

35

HEMENDIK
HURBIL

ARENATZarte

Eskultura-parke bat da, eta gaur egun Gueñeseko udaletxea den Urrutia etxeko antzinako lorategien tokian dago. Bertako ibilbide dotoreek ehun urteko hogeita hamar bat zuhaitz bitxi dauzkate inguruan. Ukitu erromantikoa dute, eta ezin hobeak dira pasieran ibiltzeko, deskonektatzeko, irakurketan murgiltzeko edo parkeari izena ematen dioten artelanak behatzeko.



HEMEN GAUDE

43.223520,
-3.024593

1983aren inguruan, arbasoek XIX. mendearen amaieran egarria asetzeko ekoizten zuten hura berreskuratzea erabaki zuten: Markoletako txakolin preziatua berreskuratzea, alegia.

Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura duen upategi txikiena da. Artisau-eran egiten dute; muztioak (zotzak kenduta eta mahastian bertan prentsatuta) 50 metro besterik ez ditu egiten upategiraino.



609 018 820
markoletabodega@gmail.com
Markoleta 10 - La Quadra - GUEÑES
www.bizkaikotxakolina.eus



TXABARRI

HEMENDIK
HURBIL

Abellanedako Batzar Etxea

Batzar Etxea Bizkaiko monumentu historiko aipagarrienetako bat da, eta Enkarterrietako garrantzitsuenak.

Bertan, Batzar Nagusiak egiten ziren, eta, 1394an, Foru Zaharra sinatu zen. Hasieran, batzarrak abellaneda haritz baten azpian egiten ziren, eta gero eraiki zituzten dorreak, korrejidorearen etxea, espetxea eta Aingeru Guardakoaren ermita. Gaur, eskualdearen historia, ondarea eta etnografia ikertzeko eta hedatzeko gunea da.



Upategi honetan, ekoizpenaren kalitateari ematen diote lehentasuna, eta ez kopuruari. Horren erakusgarri dira azken urteotan lortu dituzten sari ugariak; bereziki, ardo zuriaren alorrekoak. Hala ere, txakolin gorria eta beltza ere ekoizten dituzte.

Mahastiek orientazio ezin hobea dute laborantzarako, eta, bertatik, Bizkaia-aren, Burgosen eta Kantabriaren artean muga naturala ezartzen duten mendiak ikus daitezke.

HEMEN GAUDE



43.230286,
-3.165107



Sopuerta

625 708 114
658 728 865
txabarri@txakolិតxabarri.com
Avellaneda auzoa z/g. SOPUERTA
www.txakolិតxabarri.com



UPATEGIA

ULIBARRI

37

HEMENDIK
HURBILGordexolako indianoen
etxeak

Ameriketan urre-bila ibili zirenen istorioa da indianoena. Ospetsuenak aberastu egin ziren, eta luxuzko etxe izugarriak eraikitzeke itzuli ziren: sekulako etxeak ziren, zein baino zein galant eta nabarmenagoak, eta lorategi zabalak izaten zituzten. Etxeen arkitektura ere berezia zen; izan ere, Indianoek sofistikazioa bihurtu zuten nortasun-zeinu, Gordexolako etxetzar ikusgarriek erakusten duten moduan.



HEMEN GAUDE

43.167875,
-3.043948

Mahastigintza eta abeltzaintza uztartzen dituen proiektu ekologikoa da honako hau, antzinako baserrien sustaiei eta bizimoduari heltzen diena. Bada, «terroir» deritzon ardo tipikoa dugu hemengo txakolina, nortasun handikoa, eta lurrari euskarririk gabe egokitutako mahatsondo ekologikoetan dauka jatorria.

Udazkenean eta neguan, latxa eta karrantzana arrazetako ardiak ibiltzen dira mahastietan, larrearen emankortasunean oreka handiagoa egon dadin. Halaber, gazta ekologiko gozo-gozoa egiten dute ardi horien esnearekin.



665 725 735
ulibarruartzaiak@gmail.com
Isuskiza auzoa 1. GORDEXOLA
www.visitenkarterri.com



VIRGEN DE LOREA

HEMENDIK
HURBIL

Boinas La Encartada Museoa

La Encartada ehun-fabrika izan zen XIX. mendean, eta artile-puntuzko gaiak ekoizten zituzten (hala nola, txapelak). Bada, aldatu gabe mantendu ditu bai itxura, bai hornidura teknologikoa, eta, beraz, nahitaez bisitatu beharrekoa da.

Sortu zeneko garaira eramaten gaituen museo industrialia da: jatorrizko engranaje guztia martxan dago, eta garai hartako dekorazioa ikus daiteke geletan.



HEMEN GAUDE

43.219949,
-3.156564

Otxaran paraje ederra da, eta Enkarterriak eratzen dituzten bailara zoragarrietako batean dago. Virgen de Lorea finka txakolinari eskainitako mahasti handiena da Euskadin. Gaur egun, 25 hektarea dauzka.

90eko hamarkadan, 80ko hamarkadan ekoizten hasi ziren txakolina, berriro ere merkatura sartzea erabaki zuten, eta, horri begira, etxe indianoen arkitektura deigarria duen etxetzar zaharra birgaitu zuten, eta gaur egungo upategia eraiki.



Zalla

629 455 620
(94) 667 17 15
virgendelorea@spankor.com
Lorea auzoa z/g. ZALLA
www.bodegasvirgendelorea.com





URDAIBAI,

Biosferaren Erreserba

40



Urdaibaiko estuarioa Oka ibaiaren ahoan sorturiko naturagunea da. Bertako aberastasun ekologikoari esker, Biosferaren Erreserba izendatu du Unescok, eta Natura Sarean dago. Hegazti migratzaileen atsedenleku garrantzitsua da, eta Urdaibai Bird Center zentrotik behatu ahalko dituzu horiek.

Oso paisaia anitza da, itsasoa, altuera txikiko mendiak, mareabeheran sortzen diren hareatzak eta padurak, hondartza ederrak (Laga eta Laida) eta kala txikiak (Antzoras, Lapatza eta Aritzatxu) baitauzka. San Pedro Atxarreko behatokitik igo eta panoramikaz gozatzea baino ez zaizu falta.

GERNIKA-LUMO

Bakearen sinbolo, euskaldunen ikur

Bizkaiaren eta euskaldunen sinboloa den herririk badago, Gernika-Lumo da hori. Bere historia, tamalez, Gerra Zibilaren testuinguruan 1937an jasandako bonbardaketak kaltetu zuen, eta pasarte hori oinarri hartuta sortu da nortasun handiko herri indartsu hau, bakearen eta askatasunen erreferentea.

Gernikako Batzar Etxeak (bertan egiten dira Bizkaiko Batzar Nagusiak), Bakearen Museoak edo Euskal Herria Museoak, Santa Maria elizak eta Europako Herrien Parkeak, non Txillidaren eta Henry Moore-ren eskulturak dauden, nahitaez bisitatu behar den ondare historiko eta kulturala osatzen dute, ondare baliotsu bezain preziatua.

AMUNATEGI

HEMENDIK
HURBILMundakako ezkerreko
olatua

Nazioartean ezaguna, hegoaldeko eta hego-ekialdeko haizeek eratzten duten olatu hau Mundakako barran sortzen da, eta Laida hondartzan hiltzen; bada, 4 metroko garaiera izan dezake, eta 400 metroko luzera.

Kirol-jarduerak eta surf-lehiaketak egiteko ez ezik, Mundaka toki ezin hobea da paisaia paregabeaz, pasiera lasaigarriez eta gastronomia onaz gozatzeko.



HEMEN GAUDE

43.376521,
-2.705749

Amunategi Nagusiko etxe zaharrak (1849) euskal baserrien askotariko erabilera tipikoak biltzen ditu. Bailaren hondo gisa, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako padurak daude. Gaur egun, zaharberrituta dago, eta azken belaunaldiko upategia dauka. Baserrietako elementu arkitektonikoen artean, XX. mendearen erdialdera arte mahatsondoen mahats-parrei eusten zieten pilastren edo kolomadien ilarak nabarmentzen dira, mahastiaren gaur egungo egiturearekin kontrastatzen baitute.



685 737 398
(94) 687 19 71
anton.aranburu@gmail.com
San Bartolome auzoa 57. BUSTURIA
www.amunategi.eu



UPATEGIA

BERROJA

43

HEMENDIK
HURBIL

Ziortzako monasterioa eta Simon Bolibar Museoa

Eremuko harribitxietako bat da, eta, Erdi Aroan eta Errenazimenduan, Donejakue bideko toki garrantzitsua zen. Euskadiko Monumentu Nazional izendatu dute.

Ziortza-Bolibar herrian, non «askatzailearen» arbasoak bizi izan ziren, Simon Bolibar Museoa ikus dezakezu, haren irudiari eta Erdi Aroko bizimoduari buruz gehiago jakiteko.



HEMEN GAUDE



43.262372,
-2.657986

Azpiegitura modernoa eta ekipamendu-sorta bikaina dituen upategi hau Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren goialdean dago, eta, bertatik, mahasti-paisaia ikusgarria beha daiteke. Duen kokapenaren ondorioz, erreferentziazko tokia da inguruko aukera turistikoan; hala nola, Santimamiñeko labar-margoak, Arrolako oppiduma, Gernikako Batzar Etxea, Foruko aztarnategi erromatarren aztarnak edota paisaia-balio handiko beste eremu batzuk (adibidez, Gaztelugatxeko haitz ikusgarria).



670 915 657
(94) 410 62 54
txakoli@bodegaberroja.com
Zugastietako errepidea, Bizkaiko Balkoia
(Aiuria), Berroja auzoa 12. MUXIKA
www.bodegaberroja.com



ITSASMENDI

HEMENDIK
HURBILGernika-Lumoko Bakearen
Museoa

Ez dago Gernika-Lumo bezain toki onik bakearen museo bat jartzeko, Espainiako Gerra Zibilaren (1936) zori-gaiztoko gertakarien sinboloa baita. Orain, museo dinamiko bat da, adiskidetzeari eta bakea guztion lana dela dioen mezuari arnasa emateko tokia. Oso ibilbide historiko interesgarria eskaintzen da bisita honetan, familia-giroan egiteko bikaina.



HEMEN GAUDE

43.295262,
-2.686889

Urdaibaiko Biosferaren Erreserba bezalakoa da, eta, bertan, etengabeko bilakaeran dagoen upategi natural, konplexu eta anitza dago.

Hogeita hamar urte daramatzate Bizkaiko landa-ingurunea ezagutzen, eta bertako aniztasunari, paisaiarekiko erabateko errespetuari, mahastiei, oso interbenzionistak ez diren teknika enologikoei, profesionaltasunari eta pertsonen irrikari esker, produktu-sorta zabala ekoiztea lortu dute, ikerketa, berrikuntza eta tradizioa elkartuta.



(94) 627 03 16
info@bodegasitsasmeni.com
Arane auzoa 3. GERNIKA-LUMO
www.bodegasitsasmeni.com

UPATEGIA

HASIBERRIAK

45

HEMENDIK
HURBIL

Elantxobe eta kostaldea

Elantxobe Bizkaiko herri politenetako bat da. Ogoño lurmuturraren mendi-hegalean eraikitako etxeek, harrizko kale estu eta aldapatsuetan daudenez, kostalde osoko biztanlegune deigarrienetako bat osatzen dute portuarekin batera.

Urdaibaiko naturagune zoragarrian dago, zeina Unescok Biosferaren Erreserba izendatu duen.



Egunez egun hobetzen doan produktua lortzeko xedez larrea eta laborantza xehetasun eta arreta handiz lantzen dituen upategi aktiboa da honako hau. Duen kokapen pribilegiatua dela-eta, Urdaibai bete-betean baitago, Laga eta Laidaren eremurako ikuspegiekin, paisaia-erakargarritasun handiko upategia da.

Hasiera-hasieratik duten MENPE markaz gain, NEKAZARI izenarekin bataiatu duten txakolina daukate, buztinezko tinan egiten dutena: txakolina horrela egiten duen lehen upategia da.

HEMEN GAUDE



43.406278,
-2.672372

689 604 106
(94) 627 77 10
gaia.bodegak@gmail.com
Gametxo auzoa 12. IBARRANGELU
www.hasiberriakwines.com





Ikuskizun bizia GORBEIAKO PARKE NATURALA ETA NERBIOIKO UR-JAUZIA



46

Bizkaiko barnealdeko mendietan, kontrastez berteriko naturaz goza daiteke: mendi altuak, muino leunak eta haran sakonak daude, landa-inguru paregabean kokatuta. Parke Naturala inguratzen duten herriek xarma berezia dute, eta, haien artean, Urduña dago, Bizkaiko herri bakarra (berez, hiri-titulua dauka).

*Gorbeiaiko Parke Naturala Bizkaia eta Araba lurralde historikoen artean dago, Gorbeia mendia-
ren (1.481 metro) inguruan. Mendi-tontorrean, «Gorbeia Gurutze» ezaguna dago, 18 metroko altuera duena. Inguruak, bada, haitz malkartsu eta kobazulo ugariekin konbinatzen ditu larre bigunak, pagadiak eta hariztiak.*

*Ibilaldi polita izan daiteke Arabaren eta Burgo-
sen arteko muga naturalean Nerbioiko ur-jauzira hurbiltzea.*

UPATEGIA

BIZKAI BARNE

47

HEMENDIK
HURBILOrozkoko Museo
Etnografikoa

Legorburu jauretxean dago, Zubiaur plazan. Bada, XVIII. mendeko jauregi barrokoa da, eta euskal kulturari nahiz gure arbasoen historian sakontzeko aukera eskaintzen du, bai eta garai hartako ohiturak eta berezitasunak gogoratzeko ere. Museoan, halaber, haurrentzako ginkana entretenigarria egin daiteke.



HEMEN GAUDE

43.126124,
-2.928839

Orozko udalerri ederrean dago. Asakotariko mahasti eta barietateak erabiltzen dituzte, arreta handiz erabiltzen ere, jatorrian nahiz estiloan bereziak diren produktuak egiteko.

Nortasun propiodun txakolin finak eskaintzen dituzte. Mahasti guztiak kalitateko mahastizaintzarako baldintza egokienak dituzten magaletan daude kokatuta, hau da, 200-300 metroko altuerako magaletan, emankortasun ertaineko lurzoruetan eta "kaiuela" zein hareharriak dituen zorupean.



(94) 633 07 09
682 676 713
bizkaibarne@gmail.com
Murua auzoa z/g. OROZKO
www.bizkaikotxakolina.com



GURE
AHALEGINAK

48

HEMENDIK
HURBILUrduñako Amabirjina eta
Nerbioi ibaiaren sorburua

Natura-ingurune honetan, ibilaldiak egin daitezke; adibidez, Urduñako Amabirjina-raino igotzen den mendi-ibilbidea dago, zeinak ikuspegi liluragarria eskaintzen duen. Hortik oso hurbil, Nerbioi ibaiaren sorburuko ur-jauzi ikusgarria bisitatu daiteke, Burgosekin mugan. Hori gutxi balitz, bainuetxe moderno bat dago Urduñan, batetik bestera ibilitako egun gogor baten ostean erlaxatu ahal izateko.



HEMEN GAUDE

42.997233,
-2.999580

Bizkaiko jaurerriko hiri bakarrean dago, Urduñan. XVI. mendean jada «Upategien auzoa» deitzen zenean dago, 314 metroko altitudetan. Hiru mahasti daude bertan, eta istorioak kontatzen dituzten izenak dauzkate: lehenengoa eta zaharrena «Gure Ahaleginak» da, eta upategiak horri zor dio izena; bigarrena «Ostebi» da, euskal mitologian «euri zerutarraren jainkoa» esan nahi duena, eta hirugarrenak, markesa bati erositako lurak zirenez, «Markesaren mahastia» du izena.



658 744 181
(94) 538 41 26
a_larrazabal@hotmail.com
Ibazarra auzoa 1. URDUÑA
www.gureahaleginak.com



UPATEGIA

UGABE

HEMENDIK
HURBIL

Gorbeia Gurutzea, Parke Naturalean

Parke Naturalaren barrualdean, Gorbeia Gurutze ospetsua nabarmendu beharra dago. Parkeari izena ematen dion tontor garaienean (1.481 m) ikus dezakegun gurutze hori eraiki zuten hirugarrena izan zen (1907), aurreko biak altueraren-gatik eta denboraleengatik erori baitziren. Gorbeia hainbat jolas-eremutatik abiatuta egin daiteke txango eder-eder hau.



HEMEN GAUDE

43.144796,
-2.806704

Artea udalerrian dagoen ustiapen txikitxo da, eta bi hektarea mahasti, upategia eta txakolina botilaratzeko instalazioa dauzka.

Artisau-eran egiten dute ardoa, eta, ustiapena txikiaenez, erabateko arretaz. Hemen ekoizten den txakolinak badu beste berezigarrikerik ere: hondarretan ontzen da. Prozedura horrek txakolina zahartzen du, eta urre-kolore bizidun ardoak gorputz gehiago edukitzea eragiten du, baita botilan luzaroago iraunarazten ere.



639 304 436
ugabetxakoli@gmail.com
Sarasola 8. ARTEA
www.bbkazoka.eus/colecciones/
ugabe-txakoli



Mitologiaren eta
naturaren ibilbidea

URKIOLA PARKE NATURALA

50

Paisaia guztiz euskalduna da: malkartsua, berdea eta haitzez betea, eta, bertan, Anboto mendia (1.330 metro) da protagonista. Bertako kobazuloetan, legendak mito bihurtu dira, eta, horien artean, Mari nabarmentzen da, jeinu guztien erregina, haitzaren horma bertikalean bizi dena. Parkean, ondoz ondo ikusiko dituzu haitz altuak, bailarak eta sakanak, eta mendizaleak askotan joaten dira bertara.

Hementxe dago Urkiolako santutegia, bikotekide bila dabiltzanentzako erromesaldi-tokia (bikotekidea topatzeko, harriari hiru bira eman besterik ez duzu egin behar).



UPATEGIA

ARRITXOLA

51

HEMENDIK
HURBILDurangoko multzo
historikoa

Elementu ezagunak aurkituko dituzue bertan: Kurutzia gurutzea, Uribarriko Andre Mariaren basiliza, jauretxeak eta «Comédie Française» delakoa gogorarazten duen udaletxearen fatxada polikromatua.

Ez izan zalantzarik, erreserbatu bertako bisita gidatuak eta gozatu hiribilduko gastronomia bikainak.



HEMEN GAUDE

43.153629,
-2.620144

Inguru magiko batean dago, Urkiola Parke Naturaletik hurbil. Funtzionamenduan daramatzan 27 urteetan, bere bilakaera izan du, eta 7 hektarea mahasti eta 80.000 litroko edukiera duen upategia edukitzera iritsi da.

Gainera, txakolina egiteko prozesu guztietarako makineria modernoena dauka; hots, zotzak kentzeko, fruta beratzeko, fruta prentsatzeko, hartzidura kontrolatua egiteko eta amaierako produktuaren trazabilitatea ona izateko makineria, laborategi enologikoa barne hartuta. Denda, dastatzeetarako aretoa, pattarra egiteko destilategia eta txakolinaren museo txiki bat dauzka.



660 017 003
(94) 681 38 73
juantxi@txakoliarritxola.com
Eguskiza 20. DURANGO
www.txakoliarritxola.com



HEMENDIK
HURBIL

Urkiola Parke Naturala

Pagadiak, hariztieki eta artadiak estaltzen dituzte mendiko ibilbide malkartsuak; agertoki ezin hobea hori, mendi-ibilian ibiltzen direnentzat eta alpinistentzat edota euskal paisaia ikusgarri batez gozatu nahi duten familia eta laguntaldeentzat. Toki Alaia interpretazio-zentroan, ibilbideei eta jardueri buruzko informazioa ematen dute.

Ez dago ezer hoberik, upategi bat bisitatu baino lehen.



HEMEN GAUDE

43.242511,
-2.761154

Etxerriaga baserri izugarria da, eta gaur egungo jabeen birraitonak altxatu zuen, XIX. mendean, Marabiko lursail santu baten hondarretan. Duela gutxi, oso-osorik berregituratu dute, egin zeneko material berberak erabilia.

Bertan, txakolina eta sagardoa egiteko erabiltzen dituzten mahastiak eta fruta-arbolak ikus daitezke. Halaber, barazki- eta lekale-barietate ugari modu jasangarrian lantzeko erabiltzen duten baratzea bisitatu daiteke.



607 601 925
etxerriaga@hotmail.com
Marabi baserria, Boroa auzoa 1.
ZORNOTZA
www.bizkaikotxakolina.eus



UPATEGIA

MENDRAKA

53

HEMENDIK
HURBIL

Argiñetako nekropolia

Bertako elementuen kopurua eta kalitatea nahiz elementu batzuen antzinako kronologia direla-eta (VII-IX. mendeak), Euskadiko hilobi-monumentu garrantzitsuenetako bat da.

Hogeitabat hilobik eta bost estelak osatzen dute, eta San Adriango ermitaren parean dago, Elorrioren kanpoaldean. Nekropolia ezagutzeko bisita gidatuak eta audiogidak daude.



HEMEN GAUDE

43.144813,
-2.535503

Hegoaldera begira dagoenez, malda-
arinak dituen oso lursail eguzkitsuan
dago, eta, bertatik, Udalaitez, Anbotoko
mendigunea eta Durangaldeko gailurre-
ria beha daitezke, bai eta Elorrioko bai-
lara guztia ikusi ere.

Upategi honek Elizalde baserriaren izena
dauka, eta nekazaritzako ekoizpen-zen-
troa izaten jarraitzen du lau menderen
ostean ere. Naturarekiko errespetuaren
tradizioa eta teknologia berriak dira be-
ren helburua lortzeko oinarritzko tresnak.

635 730 345
(94) 682 00 00
kerixa@gmail.com
Elizalde baserria, Mendraka auzoa 1.
ELORRIO.
www.mendraka.com



Itsasora begira
dagoen
ondarea

LEA ARTIBAI

54

Lea eta Artibai ibaiek ematen diote izena Oiz mendigunetik itsasoraino hedatzen den eskualde honi.

Barrualdean, udalerrri historikoak (Markina-Xemein) edo monasterio apartak (Ziortzakoa) dauzka, eta, kostaldean, Ondarroa eta Lekeitio bezalako herri bitxiak. Bada, aniztasun horrek guztiak oso toki interesgarria egiten du eskualdea, eta bertako ondareaz, paisaiatz, gastronomiaz, hondartzez eta itsaslabarrez goatzera gonbidatzen du.



55

HEMENDIK
HURBIL

Lekeitio

Lekeitio bisitatzeko arrazoi ugari daude: arrantza-portua, itsas gastronomia, etxe tipikoak eta ondarea, non Jasokundeko baselizako Andre Mariaren erretaula nabarmentzen den. XVI. mendearen hasierakoa da hori, eta penintsulan zizelkatu den erretaula gotiko handienetan hirugarrena da. Bertan, Andre Mariaren bizitzaren eszenak daude irudikatuta, eta XIV. mendeko Andre Mari bat da protagonista.



Axpe familiak lau belaunaldi daramatza sagardoa eta txakolina ekoizten.

2015ean, familia beti gidatu izan duen espiritu berritzaileak bultzatuta, mahasti-sail berriak jarri zituzten kostalde bizkaitarraren eraginpean, horrela, ekoizpen-eremua zabaltu zuten, eta Eako 4 hektarea mahasti gaineratu zizkieten Markina-Xemeinen zeuzkaten bi hektareei.

HEMEN GAUDE



43.277381,
-2.498912

655 734 625
(94) 616 82 85
axpesagardoa@yahoo.es
Axpe baserria, Atxondoa auzoa 13.
MARKINA-XEMEIN
www.axpesagardotegia.es



Txakolinaren IBILBIDEAK

Bizkaiko toki eta paisaia adierazgarrienak zeharkatzen dituzten sei ibilbide, txakolina izanik produktu izarra. Deskubritu, bisitatu, begiztatu eta, batez ere, dastatu guzti-guztiak!



UPATEGIAK

- 1 ABIO UPATEGIA
- 2 BUTROI UPATEGIA
- 3 ERDIKOETXE UPATEGIA
- 4 GARKALDE UPATEGIA
- 5 GORKA IZAGIRRE UPATEGIA
- 6 DONIENE GORRONDONA UPATEGIA
- 7 MAGALARTE LEZAMA UPATEGIA
- 8 MAGALARTE ZAMUDIO UPATEGIA
- 9 URIARTE UPATEGIA
- 10 ZABALA UPATEGIA
- 11 GALDAMES UPATEGIA
- 12 MARKOLETA UPATEGIA
- 13 TXABARRI UPATEGIA

- 14 ULIBARRI UPATEGIA
- 15 VIRGEN DE LOREA UPATEGIA
- 16 AMUNATEGI UPATEGIA
- 17 BERROJA UPATEGIA
- 18 ITSASMENDI UPATEGIA
- 19 HASIBERRIAK UPATEGIA
- 20 BIZKAI BARNE UPATEGIA
- 21 GURE AHALEGINAK UPATEGIA
- 22 UGABE UPATEGIA
- 23 ARRITXOLA UPATEGIA
- 24 ETXERRIAGA UPATEGIA
- 25 MENDRAKA UPATEGIA
- 26 AXPE UPATEGIA

Enkarterriak

Tontorren eta bailaren, haitzuloen, kobazuloen eta bide ezkutuen artean mendebalderantz hedatzen den natura-eremu batek inguratzen ditu Erdi Aroko hiribildu hauek, eta itsasoarekin bat egiten duen paisaia bakana eratzen dute.

Ohitura gastronomikoen artean, Balmasedako trenbideetako «putxera» ezagunetan egindako babarrun gozo-gozoak nabarmentzen dira. Ezinbestekoa da, halaber, Pobaleko burdinola aparta eta Loizaga dorreko Rolls-Royce autoen bilduma esklusiboa bisitatzea.

Nerbioiko ibilbidea

Arabako lurralde historikoarekin partekatzen den ibilbidea da hau, bertako sakanak, mendizerrak, ibaiak, txakolina eta historia partekatzen diren bezalaxe. Garai batean, salgaiak Gaztelatik iparraldeko portuetarantz eramateko igarobidea zen.

Bada, Nerbioi ibaiaren sorburua da (ibaiak izen bereko itsasadarrera eramaten ditu urak ondoren; hots, Bilboko ibai nagusia).

Durungaldea

Erdi Aroko kale, monumentu eta jauregiek historia-aztarnak ezkutatzen dituzte naturaz bustitako paraje berezien artean.

Durungaldea zeharkatzea, euskal memoriatik eta mitologiatik pasieran ibiltzea da; bertan, herri harrigarriak topatuko dituzu, tontor garaietatik paisaia ikusgarriak behatuko dituzu, eta, nola ez, gastronomia bikaina probatuko duzu.

Erdialdeko kostaldea

Baleontzien istorioak eta surfean ibiltzeko olatuak jasotzen dituzten hondartzak dauzkagu, hondar mehea dutenak.

Itsasoaren eta urrezko ilunabarren maitaleak erakarri dituzten herriak ere badaude. Uda-partean sortzen den giro jendetsuak itsasoaz, kostako paseoez, jalez eta gastronomiaz gozatzera animatzen ditu bisitariak urtero. Txakolinak gainera, protagonismo berezia hartzen du Bakion, Txakolingunea, txakolinaren museoa baitago bertan.

Ekialdeko kostaldea

Gizadiaren ondare izendatu duten Urdaibaiko Biosferaren Erreserba inguratzen du, marinel-herrietara, itsaslabarretara, hondartzetara eta herri ederretara sartu aurretik.

Zure ibilbidean, txakolina izanik gida, Markina-Xemein barrualdeko herrira iritsiko zara, interes handiko ondare-katalogoa baitauka.



BILBAO
BIZKAIA
be basque



Txakolina, hiriburuaren ingurua ezagutzeko motorra

Ezkerraldeko herriak (adibidez, Portugalete, Barakaldo, Sestao eta Santurtzi) nahiz eskuinaldekoak (hala nola, Getxo) oso helmuga interesgarriak dira, aukera ugari eskaintzen dizkizutelako eta guztietan gozatu ahaliko duzulako ardo honetaz, pintxo zoragarriekin lagunduta edo euskal gastronomiako edozein jaki onekin uztartuta.

Halaber, kultura- eta merkataritza-eskaintza zabala ere zure helmugaren beste alderdi erakargarri bat izango da. Ez ahaztu edozein herritan poteo-giroarekin nahasteaz, eta tokiko jendearekin parteka ezazu kaleko giro hobeezin eta ospetsu hori.

Bilbao guztion gusturako

Bilbao hiri moderno eta erreferentea da. Bertako elementu arkitektoniko erakargarriek bat egiten dute bere giro bikainarekin, dendekin eta kultura- nahiz museo-jarduera etengabearekin.

Zure helmuga perfektua eta txakolinaren munduan sartu-irtenak egiteko «kanpamentua» izan daiteke, lurralde osoko upategietara eta osatalaritza-establezimenduetara joan ahalko baitzara bertatik.

Goazen PINTXOAK ETA TXAKOLINA DASTATZERA

60



Tradizio erabat euskalduna da. Tabernetako barretan hasi ziren, premia moduan, edaten ziren ardoei laguntzeko. Gutxika-gutxika, ordea, ezinbesteko bihurtu ziren, seduzitzeko ahalmen handia baitute, eta askoz ere erakargarriagoa egin zuten ibilbidea.

Pintxoen mundua oso sofistikazio-maila altuetara iritsi da, eta pintxo bakoitzarekin hoberen uztartzen den ardoa bertan egotea eskatzen du horrek. Bada, hobekien uztartzen diren ardoen artean, ezinbesteko txakolina dago. Lurraldeko edozein herritan ibil zaitezke pintxo pintxo, gastronomia eta adiskidetasuna aldi berean landuz. Eremu jakin batzuetan, pintxotan ibiltzeko ibilbideak daude, bakoitza bere estiloarekin, eta txikiteoaren bide bera jarraitzen dute. Esperientziarekin bat egitea gustatuko zaizu, miniaturazko sukaldaritzaren jaki zoragarriek txoratuko baitzaituzte.

Bizkaiko herri guztiek **txikiteoan ibiltzeko** edo **poteatzeko** eremu bat dutela esan daiteke. Urteko edozein sasoiotan, lagunekin eta senideekin une alai bat igaro nahi duten pertsoez betetzen dira kaleak, eta pintxoak ibiltzen dira, txakolin edo ardo on bat hartu bitartean. Giro hori bizitzen baduzu, tokiko jendearekin nahastuko zara, gure ohiturak ezagutu nahi badituzu galdu ezin dezakezun paseoz gozatzearekin batera.

Bilbon, zoaz **Alde Zaharra eta Deustu** auzoetara edo **Poza Lizentziatua, Ledesma, Garcia Rivero** eta **Diputazio** kaleetara.

Bizkaian, txakolina eta eskaintzen dizuten miniaturazko edozein espezialitate gastronomiko uztartzeko giro jatorra duen kale bat edo zenbait kale aurkituko dituzu **barrualdeko** zein **kostaldeko herrietan**, baita giro bera duten hirigune zaharrak ere.



Pintxo hitzak «pintxatu» aditzean du jatorria, antzina zotz batekin zeharkatuta eta ogi-xerra baten gainean zerbitzatzen baitziren jaki gozo hauek.

Oro har plateretan zerbitzatzen diren eta koilara edo sardexka erabiltzea eskatzen duten tapak ez bezala, pintxoak eskuekin jan ohi dira, pare bat mokadutan. Ondo dakizunez, Euskadiko edozein barratan zerbitzatzen diren jaki guztiei pintxo esaten diegula eta horiek jateko moduari ez diogula gehiegi begiratzen, euskal gastronomiaren alderdi horrek ere kalitate nahiz elaborazio handiko planteamendu berrietaranzko bilakaera handia izan baitu.





Euskal gastronomia- rekin ezin hobeto **UZTARTUTA**

Oso ohikoa da txakolina euskal gastronomiaren plater tipikoekin konbinatzea; adibidez, txingarretan erretako arrainarekin, bakailaoarekin, txipiroiekin edo Idiazabal gaztarekin. Hala ere, Bizkaiko Txakolina sukaldaritza bizkaitar zapoetsuaren edozein platerekin uztar daiteke. Ardo zuri gaztea denez, bikaina da arrainarekin edo hasierakoekin edateko, baina hobe esperimentazioari mugarik jartzen ez badiozu. Jakin-minak zure bidaidea izan behar du beti.

Bizkaiko Txakolin on bat edozein plater laguntzeko osagarri aparta izan daiteke; are, nazioarteko sukaldaritza modernoarekin ere har daiteke (adibidez, sushi japoniarrarekin edo egile-sukaldaritza sofistikatuenarekin).

Izan ere, txakolin berriak garai bateko ardoak baino modernoagoak dira, ongi egituratuak, lurrin garbi eta gustu orekatudunak eta gorputz nahiz konplexutasun handiagokoak. Txakolin zuri gazteak, hondarren gaineko ontzea duten txakolinak, mahats-bilketa berantiarreko txakolinak, txakolin gorriak, txakolin beltzak eta txakolin apardunak daude. Hori bai, nahitaezkoa da txakolina hotz-hotz edatea.



IZARDUN LURRALDEA



Ahalegin handi baten eta gastronomiarekiko maitasun paregabearen ondorioz, lurralde honek makina bat **Michelin izar** dauzka, seguruenik nazioartean gastronomia-arloan ematen den bereizgarri handiena izaki hori.

Bizkaiari begiratzuz gero, Eneko Atxak gidatzen duen **Azurmendi** jatetxeak hiru izar dauzka, eta **Eneko** jatetxeak bat. Izar batekin baita ere, orain Roberto Asuak gidatzen duen **Andra Mari** jatetxea (Galdakao), Jabier Garciak buru duen **Boroa** jatetxea (Zornotza), Victor Arginzonizek kudeatzen duen **Etxebarri erretegia** (Atxondo) dauzkagu eta Julen Bazaren **Garena** jatetxea Diman.

Bilbon, berriz, izar bat duten hainbat jatetxe daude: Daniel Garciaren **Zortziko**, Josean Alijaren **Nerua**, Alvaro Garrido eta Lara Martinen **Mina**, Sergio Ortiz de Zarateren **Zarate**, Eneko Atxaren **Eneko Bilbao**, Fernando Canalesen **Atelier Etzanobe** eta Martin Berasategiren **Ola**.



BIDERA irten aurretik atseden hartzeko

Bilboren eraldaketaren ondorioz, aurreikuspen turistikoak estaltzeko hotel-premia sortu zen, eta, aldagetekin bat, hainbat hotel eraiki ziren. Horrelaxe sortu zen Gran Hotel Domine hotela, Javier Mariscalek dekoratu duena. Abangoardiari jarraitzen dioten beste hotel batzuk dira Miró hotela, Meliá Bilbao hotela (Eduardo Txillida eskultorearen lanean inspiratua), itsasontzi-itxura duen Vincci Consulado Bilbao hotela eta duela gutxi irekitako NYX eta Tayko hotelak.

Tradizio handiko eraikinak gustatzen bazaizkizu, ordea, hautatu López de Haro hotela, Ercilla hotel berritua edo Carlton hotel dotorea; Alde Zaharrean, berriz, Petit Palace Arana hotela duzu itsasadarraren aurrean, gune ezagun batean (Arriaga antzokia eta Hareatzako lorategiak bertan daude).

Ostatuen eskaintza zabal-zabala da, eta askotariko kategoriak eta prezioak biltzen ditu. Guztia dago hurbil; beraz, liburuxka honetan bila ezazu zure «txakolin-helmuga», eta hurbildu zaitez edozein upategiatar, ziurtatuta baituzu itzuleran atseden hartuko duzula.



Nola egin TXAKOLIN-DASTATZE on bat

64



Ziur, txakolina dastatzen duzun tokia edozein izanda ere (batez ere, upategi bat edo antolatuko dastatzea bada), txakolinaren ezaugarri organoleptikoak hobeto atzeman ahal izateko jarraibideak emango dizkizutela.

Bizkaia eta Euskadi oso handiak izan ez arren, ardo ezberdinak dastatu ahalko dituzu eremuaren, itsasoarekiko hurbiltasunaren edo ardoa egiteko moduen arabera.

Zabaldu burua, eta jarri zentzumenak funtzionamenduan. Lurrin berriak nabaritutako dituzu, baita ezezagunak ere, edota fruta-gustuko zaporeak zein zapore garratz, gazi eta mingotsak (ardo hauen konplexutasunaren erakusgarri), eta kolore horixka bat ikusiko duzu, freskotasuna eskatzen duen ardo garden bat.

Zeureganatu ezazu ikasitako guztia, eta eman zure iritzia inguruan dituzunei.



Fase bisuala

Kopa ertain bat hartu, eta edukieraren herena bete, hobeto astindu eta maneiatu ahal izateko. Ondoren, koloreari begiratuko diogu. Ardo zuri gaztea denez, kolorearen pantonea honako hau dela ikusiko dugu: hori hila, hori hil berdexkara, hori berdexkara, hori lastokarra.

Distira eta gardentasuna dira balioetsi beharreko beste ezaugarri batzuk.



Usaimen-fasea

Lurrinaren intentsitatea neurtzeko, ardoa sudurrera hurbilduko dugu.

Ondoren, kopa astinduko dugu, ardoa aireztatzeko, eta berriro usaindiko dugu, lehen atzemandako usainetan aldaketarik gertatu den behatuz.

Txakolinak honako lurrin hauek jaria ditzake: fruta zurien aroma (sagarra, madaria), fruta-aroma zitrikoak (limoia, pomeloa, laranja), aroma belarkarak (mihilua, moztutako belarra, belar freskoa), fruta exotikoen aroma (anana, platanoa, litchia), loreen aromak (elorri zuria, akazia, ezkia eta ezitia).



Ahoa

Ahoan, ardo-kopuru txiki bat nahasiko dugu. Azukretik eta alkoholetik datorren gozotasuna mihi-puntan atzemango dugu. Freskotasuna helarazten diguten zapore garratzak, berri, mihiaren alboetan nabaritzen dira, eta ardoaren azidoen ondoriozkoak dira. Gazitasuna ertzetan nabaritzen da, eta Hondarribi Zuri bariatatearen gatz mineralek eta azido organikoek eragiten dute. Mingostasuna, aldiz, mihiaren amaieraren erdialdean hautematen da.





Euskadi eta bertako hiru Jatorrizko Deiturak:

TXAKOLINA

Euskadik hiru Jatorrizko Deitura dauzka ardo berezi honentzat.

Lurralde bakoitzean egiten diren txakolinak biltzen ditu bakoitzak.

Hasiera batean kontraesankorra iruditu liezagukeena (hots, hain lurralde txikian hiru Jatorrizko Deitura egotea) modu baikorrean ikus dezakegu, ezaugarri geografikoak ulertuz gero.

Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldeak izaera berezia ematen die ardo hauei. Barrualde mendi-tsuenak ere bere azterna berezia uzten du amaierako produktuan.

Alabaina, zera da garrantzitsu eta onena: euskal lurralde osorako ate gisara Bizkaia hautatzen baduzu, zapaltzen duzun edozein tokitan gozatu ahalko duzu txakolinaz.



ARABA



BIZKAIA



GIPUZKOA

JATORRIZKO IZENA
ARABAKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE ÁLAVA
DENOMINACIÓN ORIGEN



Araba, batez ere, Arabako Errioxako mahastietan ekoizten diren ardo beltzengatik da ezaguna. Alabaina, Arabako Txakolina jatorrideitura erregistratzeko egitasmoa abiatu zen 2001ean. Aurkitu diren lehen lekukotza idatziek diotenez,

IX. mendean ohikoa zen nekazariak Aiara bailaran (bereziki, Amurrión, Laudion eta Aiara) txakolina ekoiztea.

Arabako Txakolina JD

D.O. Txakoli de Alava

656 789 372

www.arabakotxakolina.es

www.txakolidealava.com

■ Regulador ■
Consorcio
Bizkaiko Txakolina.
Denominación
de Origen ■

mendi-hegaletan, 400 metrotik behera. Edonola ere, ondo orientatuta egongo dira, eguerdian eguzkia jaso dezaten.

Bizkaiko geografia guztian ikus ditzakegu mahastiak, bai kostaldetik hurbil, bai barrualdeko bailaretan edo altitude ertaineko

Bizkaiko Txakolina JD

D.O. Txakoli de Bizkaia

94 607 60 71

www.bizkaikotxakolina.eus

Getariako Txakolina



DENOMINACIÓN DE ORIGEN

Mahats-parretan edo landare-sareetan hazten dira mahatsak; batez ere, mahats zuriaren Hondarribi Zuri barietatea.

Uzta-biltzaileek, euskal administrazioak eta sukaldaritza gipuzkoarrak txakolin hau berreskuratzeko egin zuten ahaleginari eta ardoaren kalitate onari esker, Getariako Txakolina Jatorrizko Deitura aitortu zuten 1989an.

Getariako Txakolina JD

D.O. Txakoli de Getaria

943 140 383

www.getariakotxakolina.com



URDAIBAI

Unescok Biosferaren Erreserba izendatu du txakolina ekoizten duen eremu hau. Padurez, hondartzez eta sakanez josirikoa paraje naturala da, eta, horiei esker, erraz askoa da naturarekin harreman zuzena eraikitzea.



GASTRONOMIA bikaina

Herrialde honetan, gastronomia nortasun-zeinua da. Beraz, goza ezazu izardun jatetxeetan, erretegiatan, jatetxe txikiatan, upategietan, baserrietan...

Bisitan UPATEGIRA

Baduzu non aukeratu: dotoreak, modernoak, euskal tradizionalak... Bila itzazu zure ibilbidean, edo hautatu gogokoen duzuna. Izan ere, gauza bat ziurra da: ardo hau ekoizten dutenak oso atseginak dira, eta, haien lanarekin maiteminduta daudenez, irrika handiz kontatuko dizute guztia.



68



Jakin nolakoak diren MAHASTIAK

Txakolina egiteko prozesua ezagutzeaz gain, oso interesgarria da mahatsaren zikloez, klimaren eraginaz eta mahastien orientazioaz gehiago jakitea. Galdetu upategi batzuek zergatik eskaintzen dituzten bisita hauek.




Goazen ardoa DASTATZERA

Oso interesgarria da, txakolina berezi egiten duten eta beste ardo batzuetatik bereizten duten misterioz, berezitasunez eta propietatez beteriko ardoa delako. Gainera, txakolin zuriak (ezagunenak) txakolin beltz eta apardunetatik bereizi ahalko dituzu.



TOP izendapena jarri diegu, onenetan onenak direlako eta horiek bisitatzea, dastatzea, erostea, gozatzea... merezi duelako. Ezinbestekotzat jo ditugun esperientzien multzoa duzu hemen, hona etortzen zarenean bizi ditzazun. Apuntatu, eta, etxera itzultzen zarenean, kontatu.



Museotan TXAKOLINGUEA

Museo hau bisitatuz gero, ardo misteriotso honen alderdi guztiak, historia eta barrietateak ezagutu ahalko dituzu, eta, gainera, azalpenak entzun bitartean dastatu ahalko duzu txakolina.

POTEOAN pintxoak eta txakolina dastatzen

Halabeharrezko esperientzia ona da Bilbon edo Bizkaiko edozein herritan poteatzea eta pintxo bikainak txakolin batekin uztartzea.

Tabernetako barrak ikusten dituzunean, ezingo diozu eutsi, eta, jakina, ez zara damutuko. Baietz errepikatu!



Goazen PARRANDARA

Txakolina ezagutzeko modurik onena beraz gozatzea eta hemengo jendearekin partekatzea da. Bada, herri askotan egiten dira ardo honen inguruko jaiak, txakolin-eguna deiturikoak.



Maletan sartuko ditugu BOTILA BATZUK

Ez dago botila batzuk erosi eta norberaren herrira eramatea baino oroitzapen hobirik, zure ingurukoekin partekatu ahalko dituzulako, bizitako istorioak kontatu bitartean. Sekulako inbidia emango diezu.

SENDERISMOA mahastien artean

Bizkaiko paisaiak erakargune ugari ditu hala kostaldean, nola barnealdean, eta mahatsa lantzen den mendietatik eta mendi-hegaletatik ibiltzea da horietako bat, bai eta urtaroaren arabera kolorea aldatzen duten hedadura zoragarri horiek ikustea ere.



BILBAO TURISMOA
www.bilbaoturismo.net

BIZKAIA TURISMOA
www.visitbiscay.eus

EUSKADI TURISMOA
www.turismo.euskadi.eus

NEKATUR/LANDA-TURISMOAK
943 327 090 - www.nekatur.net

TURISMO-BULEGOAK BILBAO

BILBAO TURISMO

- Plaza Circular, 1 Edificio Terminar - 944 795 760
- Alameda de Mazarredo 66 (Junto a Guggenheim Bilbao)
- Aeropuerto 944 031 444

BIZKAIA

BAKIO
946 193 395 - www.bakio.eus

BALMASEDA - ENKARTUR
946 802 976 - www.visitenkarterri.com

BARAKALDO BEC (Bilbao Exhibition Centre)
944 995 821 - www.visitbarakaldo.eus

BERMEO
946 179 154 - www.bizibermeo.eus

DURANGO
946 033 938 - www.turismodurango.net

ELORRIO
946 820 164 - www.visitelorrio.com

GERNIKA-LUMO
946 255 892 - www.gernika-lumo.net

GETXO
944 910 800 - www.getxo.eus/turismo

GORLIZ
946 774 348 - www.visitgorliz.eus

KARRANTZA-HARANA
946 806 928 - www.karrantza.org

LEKEITIO
946 844 017 - www.lekeitioturismo.eus

MUNDAKA
946 177 201 - www.mundakatuturismo.com

MUXIKA
946 257 609 - www.uramendi.org

ONDARROA
946 831 951 - www.ondarroa.eus

ORDUÑA
945 384 384 - www.ordunaturismo.com

OROZKO
946 122 695 - www.gorbeia.euskadi.com

PLENTZIA
946 774 199 - www.visitplentzia.com

PORTUGALETE
944 729 314 - www.portugalete.org

SANTURTZI
944 839 494 - www.visitsanturtzi.eus

SOPELA
944 065 519 - www.turismoa.sopelaudala.org

SOPUERTA
946 104 028 - www.visitenkarterri.com

TRUCIOS - TURIZIOZ
946 560 079 - www.turtzioz.org

URDAIBAI-BUSTURIALDEA
946 257 069 - www.turismourdaibai.com

ZIERBENA (La Arena)
662 547 468 - www.zierbena.net

GARRAIOA

AIREPORTUA

Bilbao-Loiu · 913 211 000 (AENA)
www.aena.es

ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA

Ferry Bilbao-Portsmouth 944 234 477
www.britany-ferries.es

TRENAK

Abando Indalecio Prieto geltokia (Renfe)
Plaza Biribila 2 · 912 432 343 · www.adif.es

EUSKOTREN

944 333 333 · www.euskotren.es

Concordia geltokia; FEVE Bilbao

Bailen kalea 2 · 912 320 320

www.renfe.com

AUTOBUSAK

Bilbao Intermodal (Estación de autobuses)

Gurtubai 1 · 944 395 077 · www.bilbaointermodal.es

Intermodal (autobus-geltokia)

946 855 000 / 944 790 981

www.bilbao.es/bilbobus

Bizkaibus (Autobusak, probintzia eta aireportua)

946 125 555 · www.bizkaia.es

BILBOKO METROA

946 855 000 · www.metrobilbao.es

TRANBIA

944 333 333 · www.euskotren.es

TAXIAK

Radio Taxi Bilbao

944 448 888 · www.taxibilbao.com

Tele Taxi

944 102 121 · www.teletaxibilbao.com

Radio Taxi Nervión

944 269 026 · www.radiotaxinervion.com

BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA

Bilbaobizi

946 564 905 · www.bilbaobizi.bilbao.es

OROKORRA

LARRIALDIAK 112

INFORMAZIO OROKORRA 010

(Bilbao udalerri barruko deietarako)

944 010 010 (Bilbao udalerriatik kanpoko deietarako)

KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA

944 706 426

HERRITARREN ARRETA

944 241 700

ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

011

GALDUTAKO GAUZAK

944 204 981 / 944 205 000

BILBOKO MUSEOAK

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

www.guggenheim-bilbao.es

ARTE EDERREN MUSEOA

www.museobilbao.com

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA

www.eleizmuseoa.com

ITSASMUSEUM BILBAO

www.itsasmuseum.es

ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA

www.museodepasosbilbao.com

BILBOKO ZEZENKETA MUSEOA

www.bilbao.bmfors.com

MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA

www.euskalmuseoa.es

BERREGINEN MUSEOA

www.bilbokoberreginenmuseoa.es

ATHLETIC CLUB MUSEOA

www.sanmames.athletic-club.es/museo

EUSKARAREN ETXEA

www.azkuefundazioa.es

ARKEOLOGIA MUSEOA

www.bizkaikoa.bizkaia.es

BIZKAIKO MUSEOAK

KOSTALDEAN

ARRANTZALEEN MUSEOA

Bermeo · www.bizkaikoa.bizkaia.es

BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA

Plentzia · www.museoplentzia.org

RIALIA INDUSTRIA MUSEOA

Portugalete · www.portugalete.org/es-ES/Rialia

SANTURTZI ITSASOA MUSEOA

Barco-Museo Agurtza · www.visitsanturtzi.es

BASONDO

Urdaibako fauna basatiaren babeslekua, Kortezubi

www.basondo.com

BIZKAIA ZUBIA

Las Arenas (Gexko) /Portugalete

www.puente-colgante.com

URDAIBAI BIRD CENTER

Gautegiz-Arteaga · www.birdcenter.org

EKOETXEA URDAIBAI

Busturia · www.ekoetxea.es

TXAKOLINGUEA

Bakio · www.bizkaikoa.bizkaia.es/bxakolingunea

SANTA KATALINA ITSASARGIA

Lekeitio · www.lekeitioturismo.es/es/

BARRUALDEAN

SIMON BOLIBAR MUSEOA

Ziortza-Bolibar · www.simonbolivarmuseoa.com

DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

Durango · www.museoak.bizkaia.es

ENKARTERRIETAKO MUSEOA

Sopuerta · www.enkarterrimuseoa.es

EL POBAL BURDINOLA

Muskiz · bizkaikoa.bizkaia.es

EUSKAL HERRIA MUSEOA

Gernika-Lumo · www.bizkaikoa.bizkaia.es

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDAZIOA

Gernika-Lumo · www.museodelapaz.org

GERNIKAKO BATZAR ETXEA

Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.es

MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL

MUSEOA, "JOSE LUIS GOTI"

Leioa · www.ehu.es

OROZKOKO MUSEOA

Orozko · www.orozkomuseoa.es

EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA

Gallarta · www.meatzaldeia.es

BALMADEKOKO HISTORIAREN MUSEOA

Balmaseda · www.visitenkarteri.com

BOINAS LA ENCARTADA MUSEOA

Balmaseda · www.bizkaikoa.bizkaia.es

VALENTIN BERRIOTXOAKO MUSEOA

Elorrio · www.visitelorrio.com

LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO KLASIKOEN

MUSEOA

Galdames · www.torreloizaga.com

MUSEO MEMORIAL DEL CINTURÓN DE HIERRO

Berango · www.cinturondelhierro.es

ANTZASTI MUSEOA

Artzun Auzoa, 35, 48141, Dima

www.antzasti.es · 628 32 22 75

ORDUÑA HIRIA MUSEOA

www.ordunahiria.org / 635 751436

KARPIN FAUNA

Fauna basatiaren harrera-zentroa. Karrantza

www.karpinabentura.com

HONTZA MUSEOA FUNDAZIOA.

Mañaria · www.hontzamuseoa.es

IZENADUBA BASOA

Euskal parke mitologikoa. Olentzeroren etxea

Caserio Landetxo Goikoa Baserria (48100 Mungia)

olentzero@izenaduba.com · 946 740 061

www.izenaduba.com

DOLOMITAS FÁBRICA MUSEOA

Karrantza · visitenkarteri.com

KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETATZIO ZENTROA

Markina Xemein · https://www.learitbaiturismo.es/es/hacer/

detalle/kontzeju-zaharra





bilbaoturismo.net
visitbiscay.eus



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

BILBAO
BIZKAIA
be basque